**ESPAINIAKO GOBERNUAK "NORMALTASUN BERRIRA"KO BIDEAN ZEHAZTU DITUEN IRIZPIDEAK**

Deskonfinamendua edo "deseskalada" deitu zaion prozesu honetan, lau fase ezberdindu ditu Espainiako gobernuak. 0 Fasea delakoa maiatzaren 4tik 10era bitartean luzatuko da eta nolabait esateko, prestaketa modura balioko du ondoren etorriko diren faseetan urrats berriak ematen joateko. Fase batetik hurrengorako jauzia egiteko, osasun baldintzek positiboak izan beharko dute. Taula honetan ikusi daiteke fase bakoitzean sektore bakoitzak egin ahal izango duena.

| JARDUERA EREMUA | 0 FASEA | I FASEA | II FASEA | III FASEA |
|---|---|---|---|---|
| **LAN ARLOA** | Telelanak lehentasuna izango du hori ahalbidetzen duten enpresa eta postuetan. | Lan Arriskuen Prebentziorako eskakizunen beharrezko azterketak egingo dira COVID-19ra egokitutako jarduera ezberdinetan. | | Lan jarduera modu presentzialean gauzatzeko enpresetara itzultzeko protokoloak (NBEen erabilera eta/edo beste segurtasun neurriak), ordutegi mailakatuan eta kontziliazio bermeekin. |
| **PERTSONAK** | I Fasera pasatzeko baldintzetan dauden irletan ezohiko neurri gehigarriak hartzeko aukera.<br><br>Haurren, helduen eta bizikideen paseoak.<br><br>Familiakoak, autokontsumorako edo udalekoak diren baratzeen zaintza, beti ere etxearen helbidea dagoen udalerrian kokatzen denean, edo ondokoan, eta beharrezko | Arintze neurrien garapenean, zaurgarri diren talde guztiak modu espezifikoan babesteko neurriak ezartzea.<br><br>Zaurgarriak ez diren zein aurretiaz bestelako gaixotasunik ez duten pertsonek talde txikitan elkartuz harreman soziala izatea.<br><br>Ibilgailu pribatuen okupazioa mugatzea, etxebizitza | Arintze neurrien garapenean, zaurgarri diren talde kopuru txikiak modu espezifikoan babesteko neurriak ezartzea.<br><br>Zaurgarriak ez diren zein aurretiaz bestelako gaixotasunik ez duten pertsonek talde handiagotan elkartuz harreman soziala izatea.<br><br>Bigarren etxebizitzara joatea baimenduko da, beti ere | Arintze neurrien garapenean, zaurgarri diren talde jakinak modu espezifikoan babesteko neurriak ezartzea.<br><br>Zaurgarriak ez diren zein aurretiaz bestelako gaixotasunik ez duten pertsonentzat harreman soziala izateko aukera.<br><br>Beilak pertsona kopuru handiago batekin, distantzia |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | higiene eta distantzia sozialerako neurriak hartuz.<br><br>Mugikortasun eskakizunen beharrezko kudeaketa (puntako orduetan malgutasuna…) jende pilaketak ekiditeko.<br><br>Jende pilaketak gertatu daitezkeen eremuetan mezuak eta kartelak areagotzea (tren, autobus edo metro geltokiak, aireportuak, portuak…) segurtasun distantziak eta higiene neurriak gogoraraziz.<br><br>Garraio publikoan eta etxetik kanpo egin beharreko jarduera guztietan maskarila erabiltzeko gomendio sendoa. | berean bizi diren pertsonen kasuan salbu, hauek elkarrekin joan ahal izango dutelako.<br><br>Beilak senide kopuru mugatu batekin, distantzia fisikoko eta segurtasuneko protokoloekin. | probintzia berean baldin badago.<br><br>Ezkontzak gonbidatu kopuru mugatu batentzat.<br>Beilak hain mugatua ez den senide kopuru batekin, distantzia fisikoko eta segurtasuneko protokoloekin. | fisikoko eta segurtasuneko protokoloekin.<br><br>Ezkontzak gonbidatu kopuru handiago batekin. |
| **GIZARTE ZERBITZUAK** | Gizarte langile guztiak lanpostuetara itzultzea, bereziki zaurgarriak diren kolektiboen babeserako duten garrantziagatik. | Gizarte zerbitzuak modu progresiboan berrezartzea, kolektiborik behartsuenei lehentasunezko arreta emanez, ezarritako osasun gomendioen arabera.<br><br>Horien artean, ezgaitasunak | Egoitzetan eta etxebizitza tutelatuetan (adinekoen egoitzak salbu) dauden eta ezgaitasunen bat duten senideak bisitatzea. | Deseskalatze aurreikuspena eta adinekoen egoitzen ereduaren azterketa. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | dituzten pertsonei erreferentzia eginez, arreta goiztiarreko terapiak, okupazionalak, errehabilitaziokoak eta psikosozialak.<br><br>Etxeko arreta eta arreta jarraitua egoitzetan bizi ez diren adineko pertsonei. | | |
| **HEZKUNTZA, UNIBERTSITATEAK** | On line edo urruneko hezkuntza sustatuko da. | Hezkuntza zentroak desinfekzio lanetarako, egokitzapenetarako eta irakasleen zein pertsonal laguntzailearen administrazio zein prestaketa lanetarako zabalduko dira.<br><br>Unibertsitateak desinfekzio lanetarako, egokitzapenetarako eta administrazio zein ikerketa kudeaketarako zabalduko dira.<br><br>Unibertsitate laborategiak irekitzea. | 6 urte bitartekoentzat irekiko dira, gurasoek malgutasunik ez duen lan presentziala egin behar dutela frogatzen duten kasuentzat. Beti ere jende kopuru mugatuarekin.<br><br>15 ikasletik gorako taldeak %50ean banatuz edo talde txiki paraleloetan, txandakako asistentziarekin, azken ikasturtean (DBH 4, Batxilergoa 2, Erdi zein Goi Mailako Lanbide Heziketa 2, erregimen bereziko ikasketen azken urtea) dauden ikasleentzat, borondatezko izaerarekin.<br><br>EBAU. | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | | Hezkuntza zentroek zentroan bertan gauzatzeko errefortzu programak prestatuko dituzte, aurrez aipatu ez diren ikasleentzat. | |
| **ZIENTZIA ETA BERRIKUNTZA** | | Ezinbestekotzat jo ez zirelako pandemiaren lehen fasean itxita geratu ziren instalakuntza zientifiko-teknikoen irekitze mailakatua.<br><br>Mintegiak eta berrikuntzarekin edo zientziarekin lotura duten kongresuak egin ahal izango dira, gutxieneko 2 metroko distantzia soziala mantenduz, 30 pertsona baino gutxiagorekin, segurtasun protokoloak betetzen direla bermatuz. | Mintegiak eta berrikuntzarekin edo zientziarekin lotura duten kongresuak egin ahal izango dira, gutxieneko 2 metroko distantzia soziala mantenduz, 50 pertsona baino gutxiagorekin, segurtasun protokoloak betetzen direla bermatuz.<br><br>Ikerlarientzako egoitzak irekitzea, ostalaritza hotelentzako zehazturiko baldintza berdinak aplikatuz.<br><br>Zientzia eta Teknologia Museoak eta Zientzia Etxeak irekitzea, beste museo eta zentro kulturalentzat ezarritako baldintzetan. | Mintegiak eta berrikuntzarekin edo zientziarekin lotura duten kongresuak egin ahal izango dira, gutxieneko 2 metroko distantzia soziala mantenduz, 80 pertsona baino gutxiagorekin., segurtasun protokoloak betetzen direla bermatuz.<br><br>Zientzia-teknika dibulgazioko jarduerak eta tailer informatiboak, beharrezko mugekin. |
| **SALTOKI TXIKIZKARIAK ETA ZERBITZUEN PRESTAZIO JARDUERAK** | Aurretiazko hitzordu bidez bezeroei banakako arreta eskaintzen dieten lokal eta establezimenduak irekitzea. | Merkatal gune edo parke komertzial izaerarik ez duten lokal eta establezimendu komertzialen irekiera | Merkatal guneak eta parke komertzialak publikoari zabaltzea, eremu komunetan eta aisialdi guneetan egotea | Merkatal guneetako eremu komunak eta aisialdi guneak ez erabiltzeko debekua altxako da. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Lokal horiek mostradorea, manpara izan beharko dute eta posible ez denean, norberaren babesa ahalik eta gehien bermatu beharko dute.<br><br>65 urtetik gorako pertsonentzako lehentasunezko ordutegi bat ezarriko da.<br><br>Zerbitzu profesionalak bezeroarekin kontaktua izatea eskatzen duenean, derrigorrezkoa izango da maskarila edo eskularruak bezalako babes neurriak erabiltzea. | orokorra.<br><br>Honek ez du aldatzen alarma egoeran zabalik egotea baimendu zaien merkatal guneetako saltokien jarduna.<br><br>%30eko edukiera mugatua. Bezeroen artean gutxieneko 2 metroko distantzia bermatu beharko da. Hori posible ez denean, saltokian bezero bakarrak egon ahal izango du.<br><br>65 urtetik gorako pertsonentzako lehentasunezko ordutegi bat ezarriko da.<br><br>Dagokion Udalak hala irizten dionean, kanpoan bide publikoan egiten diren eta sedentarioak ez diren azokek euren jarduera berrabiarazi ahal izango dute, postuen arteko distantzia neurriak hartuz eta eremua mugatuz, segurtasun indarrek edukiera kontrol egokia egin ahal izateko. Hasieran ohiko | debekatuz.<br><br>%40ko edukiera mugatua. Edozein kasutan, bezeroen artean gutxieneko 2 metroko segurtasun distantzia bermatu beharko da.<br><br>Hori posible ez den lokaletan, saltokian bezero bakarrak egon ahal izango du.<br><br>65 urtetik gorako pertsonentzako lehentasunezko ordutegi bat ezarriko da.<br><br>Aire libreko azoka ez sedentarioetan ezarri litekeen postu kopurua ohikoaren 1/3 izan ahalko da edo segurtasun distantzia mantendu ahal izateko eremua handiagotu beharko da, I Fasean zehazten denarekin bat.<br><br>Hezkuntza eta Zientzia sailetan ez dauden hezkuntza zentroen irekiera | %50ko edukiera mugatua. Edozein kasutan, bezeroen artean gutxieneko 2 metroko segurtasun distantzia bermatu beharko da.<br><br>Aire libreko azoka ez sedentarioetan ezarri litekeen postu kopurua ohikoaren %50a izan ahalko da edo segurtasun distantzia mantendu ahal izateko eremua handiagotu beharko da, udalen irizpideen arabera beti ere 2 metroko segurtasun distantzia bermatuz. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | postu kopuruaren %25a jarri ahal izango da edo eremua zabaldu beharko da postu kopuru gehiago jarri eta berauen arteko zein oinezkoen arteko segurtasun distantziak bermatzeko. | (autoeskolak, akademiak...). Beharrezkoak diren distantzia, higiene eta babes neurriak hartuko dira. | |
| **OSTALARITZA, JATETXEAK ETA KAFETEGIAK** | Jatetxe eta kafetegien irekiera, produktuak etxera eramateko. Lokalean bertan ezin da kontsumitu. | Terrazen irekiera: Udaleko lizentziaren arabera aurreko urteetan baimendutako mahaien %30a jarri ahal izango da. Mahai gehiago jarri ahal izango dira Udalak espazio gehiago erabiltzeko aukera ematen badu, mahai/azalera proportzioa %30ean errespetatuz eta bide publiko horretan oinezkoentzako espazioaren areagotze proportzionalarekin. | Lokalentzat, lokalean bertan kontsumitzeko aukera, mahaietan. Mahai bakoitzeko bezeroen arteko eta mahaien arteko separazio distantziak bermatu beharko dira, diskotekak eta gaueko tabernak salbu. Edukiera %30ean mugatuko da. Eserita soilik kontsumitu ahal izango da edo eramateko hartu beharko da. | Lokalentzat, bezeroen arteko separazioa bermatzen duen edukieraren erdia bete ahal izango da gehienez. Bezeroek zutik egon ahal izango dute gutxieneko 1,5 metroko distantzia mantenduz.<br><br>Terrazetan: Udaleko lizentziaren arabera aurreko urteetan baimendutako mahaien %50a jarri ahal izango da. Mahai gehiago jarri ahal izango dira Udalak espazio gehiago erabiltzeko aukera ematen badu, mahai/azalera proportzioa %50ean errespetatuz.<br><br>Diskotekak eta gaueko tabernak gehienezko edukieraren 1/3rekin. |
| **HOTELAK ETA OSTATU** | Ez da jarduerarik baimentzen | Ireki daitezke, eremu | Eremu komunen irekiera | Eremu komunen irekiera |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **TURISTIKOAK** | jada araututa dauden salbuespenez gain. | komunak erabili gabe eta mugekin, adibidez sukaldaritzan, desinfekzio eta osasun zein higiene neurriak indartuz. | edukieraren 1/3rekin, ostalaritza, jatetxeak eta kafetegiak salbu, beraien sektoreari ezarritako mugetara lerratuko direlako. | edukieraren 1/2rekin, ostalaritza, jatetxeak eta kafetegiak salbu, beraien sektoreari ezarritako mugetara lerratuko direlako. |
| **NEKAZARITZA** | | Debekatuta dauden nekazaritzako elikagaien eta arrantza sektoreen jarduerak irekitzea.<br><br>(*) Nekazal zein abeltzaintza jarduera komertzialak saltoki txikizkarien arauen arabera arautuko dira (ontziratutako ardoa, animalia bizidunak). Gertuko merkatuak saltoki txikizkarien atalean arautzen dira. | Ehiza eta arrantza kirol jarduera modura martxan jartzea. | |
| **KULTUR ETA AISIALDI JARDUERAK** | Artxiboak irekitzea. | Liburutegiak (liburuen mailegutza eta irakurketa, jende kopuru mugatuarekin).<br><br>Leku itxietan ekitaldi eta ikuskizun kulturalak 30 pertsona baino gutxiagorekin (edukieraren 1/3rekin).<br><br>Aire libreko ekitaldi eta ikuskizun kulturalak 200 pertsona baino gutxiagokoak | Zinema aretoak, antzokiak, auditorioak eta antzeko espazioak (aurrez izendaturiko jarlekuarekin) edukieraren 1/3rekin.<br><br>Monumentu eta beste ekipamendu kulturalak (bisitak bakarrik; ekitaldi kulturalik ez) edukieraren 1/3rekin.<br><br>Erakusketa aretoak, hitzaldi | II Fasean edukieraren 1/3arekin egin zitezkeen jarduerak 1/2rekin egin ahal izango dira.<br><br>Arte eszenikoen eta musika aretoak edukieraren 1/3rekin.<br><br>Leku itxietan ekitaldi eta ikuskizun kulturalak 80 pertsona baino gutxiagorekin (edukieraren |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | (beti ere eserita diren kasuetan eta gutxieneko distantzia mantenduz).<br><br>Museoak (bisitak bakarrik, ekintza kulturalik ez), edukieraren 1/3rekin aretoetan pilaketak ekiditeko kontrolekin.<br><br>Turismo aktiboa eta naturakoa jende multzo mugatuentzat.<br><br>Ikus-entzunezko ekoizpenak eta pelikula eta telesailen grabaketak. | aretoak eta erabilera anitzeko aretoak, edukieraren 1/3rekin eta pilaketak ekiditeko kontrolarekin.<br><br>50 pertsona baino gutxiagoko ekintza eta ikuskizun kulturalak leku itxian (edukieraren 1/3rekin).<br><br>Aire libreko ekitaldi eta ikuskizun kulturalak 400 pertsona baino gutxiagokoak (beti ere eserita diren kasuetan eta gutxieneko distantzia mantenduz).<br><br>Turismo aktiboa eta naturakoa jende multzo handiagoentzat. | 1/3rekin).<br><br>Zezen plaza, eremu eta instalakuntzak $9m^2$ bakoitzeko pertsona bat bermatzen duten eremuetan.<br><br>Aire libreko ekitaldi eta ikuskizun kulturalak, parke tematikoak eta aisialdikoak 800 pertsona baino gutxiagokoak (beti ere eserita diren kasuetan eta gutxieneko distantzia mantenduz).<br><br>Turismo aktiboa eta naturakoa.<br><br>Hondartzak, segurtasun eta distantzia baldintzetan. |
| **KIROL PROFESIONALA ETA FEDERATUA** | Profesionalen eta federatuen banakako entrenamenduak.<br><br>Liga profesionaletan oinarrizko entrenamendua. | Goi errendimenduko zentroen irekiera higiene eta babes neurri indartuekin eta ahal den neurrian, txandaka.<br><br>Liga profesionaletan maila ertaineko entrenamendua. | Oinarrizko entrenamendua profesionalak ez diren liga federatuetan.<br><br>Liga profesionaletan entrenamendu osoa. | Entrenamendu ertaina profesionalak ez diren liga federatuetan. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Kontakturik gabeko kirol jarduera. | | Txapelketa profesionalak berrabiaraztea, partidak ateak itxita jokatuz edo edukiera mugatuz, komunikabideek eskaini ahal izango dituztelarik. | |
| **KIROL EZ PROFESIONALA** | Kontakturik gabeko kirol jarduera (bizikletan ibili, korrika egin, irristaketa, surfa…) beti ere bakarka eginez eta beharrezko babes neurriak hartuta (distantzia, maskarila uretan egiten ez diren kirolen kasuan, ahal den neurrian...). | Aire libreko kirol instalakuntzak, publikorik gabe (kontakturik ez dagoen kirolak egiteko soilik: atletismoa, tenisa…).<br><br>Kirol zentroetan aurretiaz hitzordua hartuta egiten diren bakarkako kirol jarduerak, kontakturik ez dutenak eta aldagelak erabili behar ez direnak. | Edukiera mugatua duten aire libreko kirol jarduera eta ikuskizunak, Fase honetako kultur eta aisialdi jardueren antzeko baldintzetan.<br><br>Espazio itxietako eta publikorik gabeko kirol instalakuntzak (kontakturik ez dagoen kirolak edo kutsatze arrisku baxua dutenak egiteko soilik). | Edukiera muga leunagoa duten aire libreko kirol jarduera eta ikuskizunak, Fase honetako kultur eta aisialdi jardueren antzeko baldintzetan.<br><br>Espazio itxietako kirol jarduerak (kontakturik ez dagoen kirolak edo kutsatze arrisku baxua dutenak egiteko soilik; adibidez, irristaketa pista). $20m^2$ko pertsona bat egoteko edukiera mugatuarekin.<br><br>Partidak edukieraren 1/3rekin, ikusleen arteko segurtasun separazioa bermatuz beti ere eta aire libreko kirol jarduerak edo gimnasioen edukieraren 1/3rekin, aldagelak erabili gabe. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **ERLIJIO GURTZE LEKUAK** | | Edukieraren 1/3 gehienez. | Edukieraren 1/2 gehienez. | |
| **HIRI BARRUKO ETA KANPOALDEKO MUGIMENDUA** | Garraio publikoaren maiztasunaren areagotze progresiboa, batez ere puntako orduetan.<br><br>Indarturiko mugikortasun planak prestatzea, eskaeraren kudeaketa barne.<br><br>Okupazioaren banaketan ezgaitasunen bat duten pertsonentzako egokitutako espazioei arreta berezia jarriko zaie. | Hiri zein kanpoaldeko garraio publikoaren zerbitzu maila %80-100 bitartean.<br><br>Bidaiarien eskaera kudeaketarako neurriak.<br><br>Erreferentziazko okupazio faktore bat ezarriko da. | | Garraio publikoko zerbitzu guztiak %100ean. |
| **DISTANTZIA ERTAINEKO LURREKO MUGIKORTASUNA (TRENBIDEA ETA AUTOBUSAK)** | Egungo baldintzak mantentzen dira (garai arruntarekin alderatuta %30era mugatzen dira zerbitzuak).<br><br>Okupazioaren banaketan ezgaitasunen bat duten pertsonentzako egokitutako espazioei arreta berezia jarriko zaie. | Egungo baldintzak mantentzen dira (garai arruntarekin alderatuta %30era mugatzen dira zerbitzuak). Ibilgailuen okupazioa %50era mugatzen da.<br><br>Trenetako katering zerbitzua debekatuta. | | Ibilgailuen (trenak eta autobusak) okupazio mailaren igoera posiblea. |
| **ITSAS MUGIKORTASUNA** | Egungo baldintzak mantentzen dira.<br><br>Okupazioaren banaketan ezgaitasunen bat duten | Egungo baldintzak mantentzen dira, lan taldean dauden autonomia erkidego eta hiri autonomoekin zerbait ezberdina adosten | | Ferrietan bidaiaririk ez ontziratzeko muga arautzailea ezabatzen da, osasun datuen bilakaeraren arabera. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | pertsonentzako egokitutako espazioei arreta berezia jarriko zaie. | den kasuetan salbu.<br><br>Okupazioa: %50 jarlekuetan edo jarleku banaketa elkarrengandik 2 metro edo gehiagora. %100 kamaroteetan, beti ere helbide berean bizi diren pertsonek okupatuta baldin badaude. | | Aisialdiko itsas jarduerak baimentzen dira. |